

# KODE ETIKOA ETA JOKABIDEKOA

---

**irse.ebi**



Instituto de Reintegración Social de Euskadi  
Euskadiko Birgizarteratze Institutoa

IRSE-EBI | [info@irse-ebi.org](mailto:info@irse-ebi.org) | [www.irse-ebi.org](http://www.irse-ebi.org)



\* IZAERA SOZIALA DUEN ERAKUNDEA: BEZetik salbuetsitako jarduera, Balio Erantsiaren Gaineko Zergari Buruzko azaroaren 9ko 94/7 Foru-Arauaren 20.1 artikulua 8. Atalaren arabera/ ASOCIACIÓN DE CARÁCTER SOCIAL. Actividad exenta de I.V.A. en aplicación del art. 20,1º apartado 8, de la Norma Foral 7/94 de 9 de noviembre, del Impuesto sobre el Valor Añadido.

IFK/C.I.F. – G/48242259. \* GV B/657/87 Elkartearen Erregistro zenb/Nº Registro de Asociaciones G.V. B/657/87 \*  
BFAREN Erakunde Laguntzailea (BO. 038) E. Colaboradora con la D.F.B. BO.038

# AURKIBIDEA

<b>1. AURKEZPENA</b>	04
<b>2. SARRERA</b>	05
<b>3. APLIKAZIO-EREMUA</b>	05
<b>4. OINARRI ETIKO OROKORRAK</b>	
4.1 IRSE-EBIko profesionalei buruz	05
4.2 Erabiltzaileekiko harremanetan	06
4.3 Enpresa hornitzaileekiko harremanetan	06
4.4 Erakunde publiko eta pribatuekiko harremanetan	06
4.5 Gizartearekiko harremanetan	06
<b>5. IRSE-EBIko PROFESIONALEN BETEBEHARRAK</b>	07
<b>6. LEGE-BETETZEA</b>	08
<b>7. GARDENTASUN FINANTZARIOA</b>	08
<b>8. ZABALKUNDEA, PRESTAKUNTZA ETA EBALUAZIOA</b>	08
<b>9. DIZIPLINA ERREGIMENA</b>	09
<b>10. ONARPENA</b>	09
<b>11. ONIRITZIA EMATEA</b>	09

## 1. EUSKADIKO BIRGIZARTERATZE INSTITUTUA (IRSE-EBI)

### Aurkezpena

1987an bere ibilbideari ekin zionetik, Euskadiko Birgizarteratze Institutua elkarteak (IRSE-EBI) pertsonen ongizate psikosoziala lortzen laguntzea izan du helburu, ikuspegi transbertsal eta integratzailetik lan eginda.

Pertsonen garapen pertsonala eta bizi kalitatea sustatuta, IRSE-EBI erakundeak bilatzen du helduek eta adingabeek zein haien bizikidetzako familia guneek eta ingurune sozialak autonomia maila handiagoak eskuratzea, eta hori lortzearen alde egiten du, beraz.

- Gazte justiziarri eta adingabeen babesari lotuta adingabekoekin egiten den lanean, administrazio publikoekin batera heziketa proiektuak eta bizilekuen proiektuak kudeatzeaz gain, IRSE-EBIk gazteei eta haien familiei arreta emateko programa propioak ere garatu ditu bere ibilbidean zehar, bai eta gizarte eta heziketa alorreko eta alor psikohezitzaileko orientazio eta laguntza programak, laguntza psikoterapeutikokoak, prestakuntzakoak, orientaziokoak eta gainbegiratzekoak ere.
- Eremu penalean pertsona helduekin egiten diren interbentzioetan, IRSE-EBIk laguntza, aholkularitza eta babesa eskaintzen dizkie egoera batean biktima izan direnei eta egoera hori eragin dutenei, Delituen Biktimei Laguntzeko Zerbitzua, Zigorren Kudeaketarako Euskal Zerbitzua bere gain hartuta eta arretarako eta orientaziorako hainbat programa landuta eta abian jarrita.

IRSE-EBIk ez du irabazi-asmorik, eta helburu hauek ditu:

a.- Atxilotua izan den, espetxetik atera den edo behin-behineko askatasunean dagoen edozein erabiltzailerri laguntza eta aholkularitza ematea.

b.- Gizartean baztertuta edo baztertuta izateko arriskuan dauden pertsonen, delituzko jokabideak eta jokabide antisozialak dituztenei eta egokitzeko zailtasunak dituztenei gizarteratzen laguntzea.

c.- Laguntza ematea edozein delituren biktima izan diren pertsonen –zuzenean edo zeharka delitu baten ondorio psikologiko, fisiko, ekonomiko edota sozialak pairatu dituzten pertsonak-, laguntzeko eskatzen digutenean.

d.- Genero biolentziaren biktimak diren emakumeekin eta haien seme-alaba adingabeekin lan egiteko programa espezifikoak bultzatzea eta gauzatzea.

e.- Neska-mutiko adingabeen eta neska-mutiko horien zaintzaren eta babesaren arduraren duten pertsonen arretarako, laguntzarako eta heziketarako prestatzen diren programak edo proiektuak egitea bultzatzea, dela babesgabe daudelako, dela neurri soziohezitzaile edo bestelako neurrien menpe daudelako.

f.- Gazte justiziaren testuinguruan zein gazteen babesaren eta prebentzioaren eremuan nerabe eta gazteen arazo klinikoei heltzeko eta haiek terapeutikoki tratatzeko programa eta ereduak garapena bultzatzea.

g.- Testuinguru judizializatuetan zein testuinguru soziosanitarioetan pertsona helduen arazo klinikoei heltzeko eta haiek terapeutikoki tratatzeko programa eta ereduak garapena bultzatzea.

h.- Justizia leheneratzailea eta gatazka konpontzeko beste sistema baketsu batzuk eta gizarteko eztabaidak eta, bereziki, bere jardueraren garapen eremuetan gertatzen direnak argitzeko prozesu egokiak sustatzea, eta horien guztien gainean informatu eta zabalkunde egitea.

i.- Informazioa eta laguntza ematea Elkartearen helburu eta lan ereduetan interesatuta hurbiltzen diren pertsona guztiei, eta aholkularitza, prestakuntza eta gainbegiratze zerbitzuak eman.

## 2. SARRERA

IRSE-EBIk bere Estatutuetan dituen printzipioetako bat da arreta pertsonalizatua, profesionalizatua eta kalitatekoa ematea; beraz, ematen dituen zerbitzuak gero eta eraginkortasun eta efizientzia handiagoz kudeatzeko antolaketa eredu egokia edukitzeaz gain, beharrezkotzat jotzen du bere jardueraren azpian betidanik egon diren printzipio eta balioak dokumentu batean jasotzea eta dokumentu hori Zuzendaritzari, plantillari eta tarteko agenteei helaraztea.

IRSE-EBI erakundearentzat, Kode Etiko bat da erakundearen ezaugarri diren helburuekin koherente izanda jarduteko eta jokatzeko gida bat borondatez adierazteko modu bat.

Kode Etiko hau IRSE-EBIren web gunean dago eskuragai ([irse-ebi.org/es/](http://irse-ebi.org/es/)). Horrez gain, IRSE-EBIko langileei ere bidaliko zaie beren posta elektronikoko helbidera, eta Elkarreak kudeatzen dituen zerbitzuetara inprimatuta bidaliko da, Elkarrearen erabiltzaileek eta langileek eskura eduki dezaten. Gainera, kontratu bidez, praktikak egiteko edo boluntario Elkartean lan egiten duten pertsonen ere aurkeztuko zaie beti Kode Etikoa, hasieran ematen zaizkien prestakuntza saioetan

Kode Etikoa derrigor bete beharko da, eta hala adieraziko da berariaz kontratatutako pertsonen lan kontratuetan, kontratuari atxikitako dokumentu batean.

Espero da Elkartean sartzeko diren pertsona guztiak Kode Etiko honekin ohitzea eta Kodearen printzipioak eta balioak aplikatzea beren zereginetan. Elkartean sartzeko den edota bertan lan egiten duen edonork planteatu diezazkioke Etika Batzordeari Kode Etiko honek sortarazten dizkion zalantzak, iradokizunak edo galderak. Zuzendaritza taldeko kide batek, juntako beste batek edo bazkideen batzarrak aukeratutako langile batek osatuko dute Etika Batzordea.

Dokumentu honen asmoa ez da erabat zehatza izatea, ez eta gatazka etikoren bat edota jokabidekoa eragin dezaketenean egoera guztiak jasotzea ere. Horrenbestez, Kode Etiko honetan aurreikusita ez dauden egoerak Etika Batzordeak ebazteko ditu, irizpide justu eta bidezko baten arabera eta kode honen printzipio orokorretan oinarrituta.

## 3. APLIKAZIO-EREMUA

Kode Etiko honetan jasotzen diren printzipio eta jokabide arauak IRSE-EBIn dauden profesional guztiak bete beharrezkoak dira, praktiketan daudenekin zein boluntarioekin, alde batera utzita haien maila hierarkikoa eta kokapen geografiko edo funtzionala.

## 4. OINARRI ETIKO OROKORRAK

### 4.1 IRSE-EBIko profesionalei buruz

IRSE-EBIren ustez giza kapitala da berak duen aktibo nagusia, eta agintzen du pertsonak beti errespetuz tratatuko dituela, haiekiko harremanetan berdintasunez eta gardentasunez jokatzeko, eta konpromiso hauek bere gain hartuta:

- a.- **Diskriminaziorik ez eta aukera berdintasuna.** IRSE-EBI erakundeak aukera berdintasunen alde egingo du, bai kontratazioetan, bai prestakuntzan, bai jardueretan eta bai lan baldintzetan ere, eta, horretarako, saihestuko du genero, erlijio, ideia, ezgaitasun, adin eta orientazio sexuala direla-eta diskriminazio negatiboa egitea, eta diskriminazio positiboko neurriak aplikatuko ditu, beharrezkoak direnean. Debekatuko du jazarpen edo abusu fisiko, sexual, psikologiko edo hitzezko edozein adierazpen, bai eta lanean norbaiti beldurra, iraina edo gorrotoa sentiarazten dion girorik eragiten duten portaerak ere.
- b.- **Famili bizi eta laneko jardueren uztartzea.** IRSE-EBI saiatuko da, ahal den neurrian, famili bizi eta laneko uztartzearen erraztasunak ematen.
- c.- **Intimitaterako eskubidea.** IRSE-EBIko langileek emandako informazioaren pribatutasuna errespetatuko du, bai eta haiek egiten duten lanaren konfidentzialtasuna ere.
- d.- **Laneko segurtasuna eta osasuna.** IRSE-EBIko lan arloan, gizarte segurantzaren arloan eta prebentzio eta segurtasunaren arloan indarrean dauden legeriak beteko ditu, lan arriskuak prebenitzeko eta minimizatzeke.
- e.- **Prestakuntza.** IRSE-EBI bere langileen ibilbide profesionalen garapenaz arduratuko da, bai eta haien

garapen pertsonalaz ere, eta horretarako etengabe prestatzen lagunduko die.

f. **Informazioa eta komunikazioa.** IRSE-EBIk lantaldeak informatuta edukiko ditu beti haien jarduera profesionalerako garrantzitsuak diren aldaketa, proiektu eta helburuen gainean, eta agintzen du haien iritzia eta proposamenak entzun eta baloratuko dituela.

g. **Laneko giroa.** Laguntasuna, errespetua eta talde lana bultzatuko da, eta horretarako langileei beren zereginak egiteko behar dituzten tresna eta lan baldintza egokiak eskainiko zaizkie.

## 4.2 Erabiltzaileekiko harremanetan

IRSE-EBIk bere erabiltzaileekin duen harremana balio eta printzipio hauen menpe egongo da:

a.- Pertsona ororen giza duintasuna erabat errespetatuko dela bermatzea, bere interbentzioaren ibilbideko protagonistatzat hartuta.

b.- Arraza, erlijioa, nazionalitatea, genero edo beste edozein baldintza pertsonal edo sozial dela-eta inor ere ez dela diskriminatuko bermatzea, legeak debeatuta baitago.

c.- Informazioaren konfidentzialtasuna, irudiaren errespetua eta pertsonen intimitaterako eskubidea bermatzea, arreta berezia eginez adingabeen eskubi-deei, Datuen Babesari buruzko legeria betetzeko.

d.- Ez erabiltzea inoiz eskura dugun informazio pribatua.

e.- Emakumeek eta gizonek dagokien interbentzio eremuan aukera eta emaitza berdintasuna bultzatzea, bai eta biekiko zuzentasuna ere.

f. Proiektuetan eta zerbitzuetan bikainak izatea bilatzeko konpromisoa, eta etengabeko hobekuntzako prozesu horretan aurrerapen teknologikoak eta jardunbiderik hoberenak txertatzea.

## 4.3 Agente, zerbitzu eta enpresa hornitzaileekiko harremanetan

IRSE-EBIk bere hornitzaileekin duen harremana balio eta printzipio hauen menpe egongo da:

a.- Elkarrekin irizpide objektiboak eta inpartzialak erabiliko ditu hornitzaileak aukeratzeko eta edozein eratako faboritismoz jokatzea saihestuko du.

b.- IRSE-EBIk agenteekin, zerbitzuekin eta enpresa hornitzaileekin dituen harremanak konfiantza, zuzentasunean eta zintzotasunean oinarrituko dira.

c.- Harreman sendoa eta iraunkorra bultzatuko da aukeratutako enpresa hornitzaileekin, funtsean kalitate, ekologia, gizarteratze eta elkarrekiko onurako irizpideak edukitzeko.

d.- Legezko kontrako jokabidea izango da hornitzaile jakin bat aukeratzeko ematen den saririk eskatzea edo jasotzea.

e.- Elkarrekin konpromisoa hartzen du agentzia hornitzaileek emandako datu pertsonalen konfidentzialtasuna zaintzeko, datuen babesari buruzko legeriak ezartzen duenaren arabera.

## 4.4 Erakunde publiko eta pribatuekiko harremanetan

IRSE-EBIk erakunde publikoekin (baita Administrazioarekin ere) eta erakunde pribatuekin dituen harremanek lankidetzaren, gardentasuna eta Elkarrekin helburuak lortzeko adostasuna bilatzea dituzte funtsezko irizpide, eta, zehazki, printzipio hauetara egokituko dira:

a.- Erakunde bakoitzaren independentzia eta autonomia errespetatuko da.

b.- Beste erakunde batzuekin elkarlanean arituko da eta esperientziak partekatuko, lankidetzaren helburuak IRSE-EBIren xede eta helburuekin bat datozenean, gure printzipio eta independentzia arriskuan jarri gabe, balio partekatuetan oinarrituta, arlo komunean eta gizarrekin onurarako.

c.- Erakunde publiko eta pribatuekin eta Administrazioarekin lankidetzan aritzean partekatzen den informazioaren gardentasuna bermatuko da.

d.- Organismo publikoekin harreman kritikoa eta adeitsu edukiko da, eta aldi berean argitasun, koordinazio eta osagarritasunaren balioetan oinarrituta.

e.- Ezingo da behar ez den oparirik eta abantailarik eskaini, ez eta eman, eskatu eta onartu ere, ez zuzenean ez zeharka, haien izaera edozein dela ere eta zein agintaritzaren eskutik datorren berdin dela, IRSE-EBIren erakunde politiko edota publikoekiko duen independentzia zainduta eta edozein eratako manipulazio saihestuta.

## 4.5 Gizartearekiko harremanetan

IRSE-EBIk gizartearekin duen harremana oinarritzko balio eta printzipio hauen menpe egongo da:

- a.- Gure ekintza guztietan gardentasuna izango da gidari.
- b.- Zintzo lehiatuko da, jokabide engainagarriak edo iruzurrezkoak onartu gabe.
- c.- Bere jardueraren xede den biztanleriaren giza arazo eta arazo sozialen berri emango dio komunitateari.
- d.- Saiatuko da IRSE-EBIren jarduera guztiak ingurumena ahalik eta gehien errespetatuz egiten, baliabide naturalen kudeaketa iraunkorra ahalbidetuta.

## 5. IRSE-EBIko PROFESIONALEN BETEBEHARRAK

Zerbitzuak ematean kalitate irizpideak betez eta beren maila hierarkikoa alde batera utzita, IRSE-EBIko profesionalak Kode Etiko honetan xedatutakoa betetzeko konpromisoa hartzen dute, eta, zehazki, jokabide pertsonal eta profesionalaren printzipio hauek:

- a.- Erabiltzaileen arazoak konpontzeko modurik hoberena bilatuko dute, eremu guztietan (eremu sozialean, hezkuntzakoa, terapeutikoa, juridikoa, ekonomikoa, etab.) duten ezagutzak eta baliabideen arabera, haien autonomia pertsonala sustatzeko.
- b.- Lehentasuna emango diete artatzen dituzten pertsonen premiei eta pertsona horien prozesu soziohezitzaileari edota bergizarteratzaileari –leheneratzekoa, errehabilitaziokoa eta hobekuntzakoa–, beste gai batzuen aurretik –antolaketa, laneko gaiak, judizialak edo administratiboak–
- c.- Pertsonen aniztasun soziokulturala errespetatuko dute, zuzentasun irizpideei jarraituta eta zerbitzuan kalitate gutxiago eman gabe.
- d.- Jokabide diskriminatzaileak, tratu txarrak, jazarpenak edo Kode Etikoan jasotakoaren aurka doazen egintzak ukatu eta gaitzetsiko dituzte.
- e.- Egiazko informazioa, ulergarria, osoa eta zehatza emango dute eskainitako zerbitzuen gainean, bai eta pertsona onuradunen eskubide eta betebeharren gainean ere.
- f.- Onartu egingo dute eta baimena emango dute, baita ere, beraien datu pertsonalak IRSE-EBIk kontratatutako langileen fitxategian sartzeko, zeina Datu Babeserako Agentziaren Erregistroan inskribatuta baitago.
- g.- Konpromisoa hartuko dute elkarteak ematen dizkien IKT bitartekoak (ordenagailuak, tabletak, mugikorrak, internet, posta elektronikoak, etab.) soilik lanerako erabiltzeko, baimenduta ez dauden beste zeregin batzuetarako erabili gabe (esaterako, gai pertsonalak) eta, beti, datuen babesari buruz eta teknologiak erabiltzeari buruz erakundeak onartutako araudi bereziak dioena betez.
- h.- Informazio pertsonala duten fitxategien edukiaren konfidentziasuna errespetatuko dute,

eta haien kalitatea eta osotasuna zainduko dute une oro, eta, beti datuen babesari buruz eta teknologiak erabiltzeari buruz erakundeak onartutako araudi bereziak dioena betez. Konfidentzialtasuna zaintzeko obligazioa IRSE-EBIn egiten duten jarduera bukatzen denean amaituko da.

i.- Ez diete ez ekarpenik, ez ordainketarik, ez babes ekonomikorik eta ez oparirik eskainiko edota egingo –ez zuzenean ez zeharka- ez administrazio publikoko kideei, ez alderdi politikoei, ez eta erakunde pribatuetako arduradunei ere.

j.- Ez dute inolako opari garrantzitsurik eskatuko edota jasoko. Balio gutxiko opariak eta arretak baino ez dira onartuko, betiere arrazoizkoak, sozialki onargarriak eta noizean behin badira. Diruzko opariak erabat debekatuta egongo dira.

k.- IRSE-EBIko lankideekin zein Elkartearen erabiltzaileekin jokabide zuzena eta arduratsua edukiko dute, eta haiekin ez dute harreman profesionalaz aparteko harremanik edukiko.

l.- Kode Etiko honetan eta indarreko araudian ezarritakoa hautsi dela jakingo balute, jakinarazi beharko lukete, Elkarteak horretarako eskura jartzen dizkien bideen bitartez, eta jakinarazpena konfidentziala eta sekretua izango da.

m.- Asmo txarrez informazio faltsuak emateari uko egingo diote. Elkarteak diziplinaz zigortuko ditu jokabide horiek (baita kaleratzearekin ere), eta izaera zibileko edota penaleko edozein ekintza abiarazteko eskubidea edukiko du.

n.- Interes pertsonalaren eta IRSE-EBIren interesaren arteko gatazka eragin dezaketen egoerak saihestuko dira.

ñ.- Plantillak elkartearekin duen lan harremanak irauten duen bitartean garatzen duen jardueraren bitartez sortzen den jabetza intelektuala IRSE-EBIrena izango da.

## 6. LEGE-BETETZEA

IRSE-EBIren jarduera guztiak indarreko araudiaren arabera egingo dira, beraz, Elkarteko langile guztiak printzipio hauek bete beharko dituzte:

a.- Indarreko araudia betetzen dela egiaztatzeko ezartzen diren barruko zein kanpoko berrikuspenak eta ikuskapenak gainditu beharko dituzte. Besteak beste, auditoria ekonomiko eta finantzarioak, datuen babeseakoak eta etikaren eta kalitatearen kudeaketakoak egingo zaizkio, legez egin beharrekoak zein Elkarteak berak erabakitakoak.

b.- Zorrotzak izan behar dira erabiltzaileekin, enpresa hornitzaileekin eta erakunde publiko edota pribatuekin bakoitzaren ezaugarri espezifikoaren arabera hartutako konpromisoak betetzean.

## 7. GARDENTASUN FINANTZARIOA

Elkarteak zergei eta kontabilitateari buruzko araudiak betetzea bermatuko du eta informazio ekonomiko gardena emango du, printzipio hauen arabera:

a.- Elkartearen kontabilitateak kontuen irudi zehatza emango du une oro, informazio finantzario zehatza eta segurua eskainita.

b.- Kanpoko edo barruko auditoriak egingo zaizkio, berak hala nahita zein derrigortuta. Auditoria horiek indarreko araudia betetzen dituela ziurtatzeko izango dira, eta pertsona trebatuek egingo dituzte.

## 8. ZABALKUNDEA, PRESTAKUNTZA ETA EBALUAZIOA

Elkarteak Kode Etiko hau elkarteko profesionalen artean eta IRSE-EBIn artatutako pertsonen artean zabaltzea bultzatuko du.

Zabalkunderako, Kode Etikoa IRSE-EBIren web gunean dago eskuragai ([irse-ebi.org/es/](http://irse-ebi.org/es/)). Gainera, langile bakoitzak Kode Etikoa jasoko du bere posta pertsonalean eta IRSE-EBIko kudeatutako zerbitzuei dokumentua inprimatua bidaliko zaie.

Kontratu bidez, praktikak egiteko edo boluntario



aritzeko Elkartean lan egiten duten pertsoneri ere aurkeztuko zaie beti Kode Etikoa, hasieran ematen zaizkien prestakuntza saioetan.

## 9. DIZIPLINA ERREGIMENA

IRSE-EBIk Kode Etiko hau eraginkortasunez aplikatzeko beharrezkoak diren neurriak garatuko ditu.

IRSE-EBIko langile guztiak behartuta daude Kode Etikoa errespetatzera eta beren jokabidea Kode Etikoan jasotzen diren printzipioetara egokitzen.

Kode Etiko honetan jasotzen diren xedapenak hautsiz gero, gerentziak neurri egokiak hartuko ditu, Etika Batzordeak proposatuta, proportzionaltasun irizpideei jarraituta.

## 10. ONARPENA

IRSE-EBI osatzen duten pertsonen eta kontratatutako pertsonen ere berariaz onartzen dituzte Kode Etikoan ezarritako jardute arauak.

Etorkizunean Elkartean sartzen diren edo Elkarteko kide egiten diren profesionalen berariaz onartuko dituzte Kode Etikoan ezarritako printzipioak eta jardute arauak.


Kode Etikoa, halaber, Elkarteko plantilla guztiaren lan kontratuei eta praktika zein boluntariotza hitzarmenei atxikiko zaie.

## 11. ONIRITZIA EMATEA

2016ko irailaren 27an bazkideek egindako Batzarrean eman zioten oniritzia Kode Etiko honi.

# KODE ETIKOA ETA JOKABIDEKOA

**irse.ebi**

 Instituto de Reintegración Social de Euskadi  
Euskadiko Birgizarteratze Institutoa

IRSE-EBI | [info@irse-ebi.org](mailto:info@irse-ebi.org) | [www.irse-ebi.org](http://www.irse-ebi.org)